

**ENPLEGURAKO ORIENTAZIO EKINTZAK
BURUTZEKO TEKNIKARI BATEN LANPOSTUA
BITARTEKO FUNTZIONARIO GISA BETETZEKO
LEHIAKETA**

OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da enplegurako orientazio ekintzak burutzeko bitarteko funtzionario bat izendatzeko lehiaketa bideratzea. Teknikari horrek Urola Kostako Udal Elkarteko Prestakuntza eta Enplegu Sailean egingo du lan. Gainerakoan, honako ezaugarriak ditu bete behar den lanpostuak:

- Sailkapen-taldea: A1
- Ordainsaria: Udal Elkarteko lansarien mailen taulako 14,5 maila
- Hizkuntza-eskakizuna: 3
- Lanaldia: osoa
- Izendapenaren iraupena: 2014ko ekainaren 30era arte.

Bitarteko funtzionarioaren izendapenaren iraupena aipatutako data horretatik aurrera luzatu ahal izango da Urola Kostako Udal Elkarteak orientazio-ekintzak bideratzeko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskutik dirulaguntza jasotzen duen neurrian.

Lan egunak eta ordutegia Udal Elkarteak urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaera eta premien arabera.

2. Eginkizunak

Lanpostuaren eginkizun nagusia da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegurako orientazio ekintzak kudeatu eta bideratzea. Urola Kostako Udal Elkarteak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zentro Kolaboratzailea da.

Horrez gain, hautatzen den pertsonak Udal Elkarteko Prestakuntza eta Enplegu Sailak agintzen dizkion bestelako lanak ere egin beharko ditu, zuzenean nahiz zeharka Orientazio eta Bitartekotza Zerbitzuarekin zerikusia dutenak.

**CONCURSO PARA LA COBERTURA INTERINA DE
UN PUESTO DE TÉCNICO PARA EL DESARROLLO
DE ACCIONES DE ORIENTACIÓN PARA EL
EMPLEO**

BASES

1. Objeto de la convocatoria

El objeto de la presente convocatoria es la cobertura interina, mediante concurso, de un puesto de técnico para el desarrollo de acciones de orientación para el empleo en el Departamento de Formación y Empleo de la Mancomunidad. El puesto responde a las siguientes características:

- Grupo de clasificación: A1.
- Nivel retributivo: nivel 14,5 de la tabla de niveles de la Mancomunidad.
- Perfil lingüístico: 3
- Jornada: completa
- Duración del nombramiento interino: hasta el 30 de junio de 2014.

La designación de interinidad podrá ser prorrogada más allá de la fecha arriba señalada en función de la financiación que la Mancomunidad obtenga del servicio Lanbide-Servicio Vasco de Empleo para el desarrollo de acciones de orientación para el empleo.

El calendario y horario laboral será el que establezca la Mancomunidad, en función de las características y requisitos del servicio.

2. Funciones

Es función principal del puesto la gestión y el desarrollo de las acciones de orientación para el empleo de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo que desarrolla la Mancomunidad como centro colaborador de Lanbide.

Asimismo, la persona seleccionada deberá desarrollar otras funciones que le sean encomendadas por el Área de Formación y Empleo de la Mancomunidad, relacionadas directa o indirectamente con las funciones del Servicio de Orientación e Intermediación.



3. Izangaiek bete beharreko baldintzak

Onartua izan eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko ondorengo baldintzak bete behar dituzte izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen:

- a) Espainiar nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat urte baino gutxiago badituzte, edo adin horretatik gorakoak, baina bere kontura bizi direnak.
- b) 16 urte beterik izatea eta derrigorrezko erretiroa hartzeko adina ez gainditzea.
- c) Honako tituluaren jabe izatea edo eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea: Psikologia, Pedagogia, Psikopedagogia edo Soziologian lizentziatua izatea.
- d) Hirugarren hizkuntza eskakizunaren titulu edo ziurtagiriaren jabe izatea (edo C1 mailaren baliokidea; ikus baliokidetasunak honako Dekretuan: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena (azaroaren 15eko EHAA, 219 zk.).
- e) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Baldintza hori egiaztatu beharko dute kontratua egiteko proposamena jasotako izangaiek, eskatzen zaien unean.
- f) Diziplina-espediente bidez administrazio publikoen, organo konstituzionalen edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioen zerbitzura aritzeko bananduta ez egotea; halaber, epai bidez desgaitze absolutu edo berezirik ez izatea, lanpostu edo kargu publikoan aritzeko, funtzionarioen eskalan sartzeko edo, lan itunpeko langileen

3. Condiciones de los/as aspirantes

Para ser admitido/a y participar en el proceso selectivo los/as aspirantes deberán reunir con anterioridad a la finalización del plazo de presentación de instancias, los siguientes requisitos:

- a) Tener la nacionalidad española, sin perjuicio de tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores. También podrán participar el cónyuge de los y las nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no estén separados/as de derecho y sus descendientes y los de su cónyuge siempre que no estén separados/as de derecho, sean menores de veintinueve años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.
- b) Haber cumplido los dieciséis 16 años de edad y no exceder de la edad de jubilación forzosa.
- c) Estar en posesión o haber abonado los derechos para su expedición, del título de licenciado en Psicología, Pedagogía, Psicopedagogía o Sociología.
- d) Estar en posesión del título acreditativo del perfil lingüístico 3 (o nivel C1 equivalente. Véase decreto de convalidaciones: de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas (BOPV nº 219 de 15 de noviembre).
- e) Poseer la capacidad funcional para el normal desempeño de las tareas propias de los puestos. Este extremo habrán de acreditarlo en su momento los aspirantes propuestos.
- f) No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de funcionario, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido

kasuan, desgaitutako lanpostuaren antzeko eginkizun edo jarduerak burutzeko. Beste estatu bateko naziotasuna izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea; halaber, bere estatuan enplegu publikoa lortzea galarazten dion diziplina zigor edo antzekorik ez izatea.

- g) Administrazioan lan egiteko bestelako bateraezintasun edo ezintasunik ez izatea, doazkion lege-xedapenek ezarritakoaren argitara.

4. Eskabideak

Lehiaketan parte hartzeko eskabidea Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariari zuzenduko zaio eta oinarri hauei erantsita doan I. ERANSKINEKO ereduaren arabera egingo da. Izangaiek eskabidean adieraziko dute hirugarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, beti ere eskabideak aurkezteko epea bukatzen deneko data erreferentziazat hartuta.

Eskabidearekin batera aurkeztu behar dira parte hartzeko baldintzak egiaztatzeko agiriak eta lehiaketan balioesteko merezimenduen egiaztagirak, hala nola:

- NANaren fotokopia konpultsatua edo, atzeritarren kasuan, nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzeko agiriena.
- Eskatutako tituluaren kopia konpultsatua.
- Hirugarren hizkuntza eskakizunaren (edo baliokidearen) egiaztagiriaren kopia konpultsatua.
- Curriculum vitae.
- Lehiaketan balioesteko merezimenduen (prestakuntza eta lan-esperientzia) egiaztagirak.

Lehiaketan baloratuko diren merezimenduak eskabidean adierazi behar dituzte izangaiek. Epaimahaiak ez du kontuan hartuko eskabidean adierazten ez den merezimendurik.

Deialdian parte hartzeko eskakizunak nahiz merezimenduak egiaztatzeko, jatorrizko agiriak edo konpultsatutako kopia aurkeztu behar dira.

Kopiak Udal Elkartearen erregistroan edo gaitasuna duen fede emaile publiko baten aurrean konpultsatu ahal izango dira. Hori egin ahal

separado o inhabilitado. En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado o en situación equivalente ni haber sido sometido a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.

- g) No concurrir ninguna otra causa de incapacidad o de incompatibilidad para el acceso a la condición de empleado público, en los términos marcados por las respectivas disposiciones legales.

4. Instancias

Las instancias solicitando ser admitido/a al proceso de selección se dirigirán, conforme al modelo del ANEXO I de estas bases, a la Sra. Presidenta de la Mancomunidad Urola Kosta. Las personas interesadas deberán hacer constar en la instancia que reúnen todas las condiciones exigidas en la base tercera, referidas siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias.


Junto con la instancia se deberá presentar la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos de participación y la documentación acreditativa de los méritos alegados:

- Fotocopia compulsada del D.N.I. o en el caso de nacionales de otros estados, documento que acredite la identidad y nacionalidad.
- Copia compulsada del título requerido.
- Copia compulsada acreditativa de estar en posesión del perfil lingüístico 3 (o equivalente).
- Curriculum vitae.
- Los certificados de los méritos alegados a valorar en el concurso (experiencia profesional y formación).

Los méritos a valorar en el concurso han de señalarse en la solicitud. El Tribunal no valorará aquellos méritos que no estén reflejados en la instancia.

La acreditación documental de las condiciones de participación en la convocatoria, así como la de los méritos, se realizará mediante presentación de originales o copias compulsadas.

La compulsas de copias podrá realizarse en el Registro de la Mancomunidad o por fedatario



izateko, jatorrizko agiria eta kopia aurkeztu behar dira.

Eskabideak aurkeztuko dira Urola Kostako Udal Elkartearen sarrera-erregistroan (Urdaneta bidea 6, Zarautz), 9:00etatik 14:00etara. Aurkezteko epea amaituko da 2014ko urtarrilaren 17an (egun hori barne).

Horrez gain, eskabideak aurkeztu ahal izango dira azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak aurreikusitako bestelako bideak erabiliz.

Aipatutako Legearen 38.4 artikuluari jarraiki eskabidea postetxean aurkezten bada, irekitako kartazalean aurkeztuko da, postetxeko funtzionarioak data eta zigilua jar diezaien, eskabideak aurkezteko epean aurkeztu dela ziurtatzeko.

Hori ezinbesteko baldintza izango da eskabideari Udal Elkarteko sarrera-erregistroan postetxean aurkeztutako datarekin sarrera emateko. Eskabideari jarri behar zaio zigilua.

Parte hartu nahi duten pertsonak eskabidean adierazi behar dute eskabideak aurkezteko epe-muga baino lehen oinarrian 3. baldintzan jarritako eskakizun guztiak betetzen dituztela.

5. Onartu eta baztertutako eskabideak

Onartutako zein baztertutako eskabideen zerrenda Udal Elkartearen webgunean argitaratuko da.

Baztertutako eskabideek 4 laneguneko epea izango dute baztertzea eragin duten akats edo gabeziak osatzeko edo zerrenda horien aurkako erreklamazioak aurkezteko, zerrendak webgunean argitara eman eta hurrengo egunetik kontatuta.

Behin-behineko zerrenda horiek behin betiko bilakatuko dira erreklamaziorik ez bada. Erreklamaziorik baldin badago beste erabaki bat emango du Lehendakaritzak, erreklamazioa onartu edo ezesteko eta behin betiko zerrenda onartzeko. Erabaki hori eta behin betiko zerrenda argitara emango da, behin-behineko zerrenda argitara emateko modu berean.

público competente. Para ello será necesario presentar la documentación original y su copia.

Las instancias se presentarán, debidamente cumplimentadas, en la sede de la Mancomunidad (Urdaneta bidea 6, 20800) de 9.00 a 14.00. El plazo para la presentación de instancias finalizará el 17 de enero de 2014, incluido.

Asimismo, podrán presentarse por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común

Las instancias presentadas en las Oficinas de Correos, de acuerdo con lo previsto en el artículo 38.4 de la citada Ley, se presentarán, en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el funcionario de Correos antes de ser certificadas dentro del plazo de presentación de instancias. Sólo en este caso se entenderá que las instancias han tenido entrada en el Registro de la Mancomunidad en la fecha que fueron entregadas en la Oficina de Correos. Es la instancia la que debe estar sellada.

Las personas que deseen tomar parte deberán hacer constar en la instancia que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la base tercera, referidas siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias.

5. Admitidos y excluidos

Las listas provisionales de aspirantes admitidos y excluidos se publicarán en la página web de la Mancomunidad.

Las personas que figuren excluidas en la referida lista dispondrán de un plazo de 4 días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación, para la subsanación de defectos u omisiones que hubieran motivado la exclusión o para plantear reclamaciones contra las listas

Las listas provisionales se entenderán automáticamente elevadas a definitivas si no se presentaran reclamaciones. Si las hubiere, serán estimadas o desestimadas, en su caso, en una nueva resolución por la que se aprueben las listas definitivas, que se harán públicas, asimismo, en la forma indicada.

6. Epaimahai kalifikatzailea

Hautaketa prozesuaren Epaimahai kalifikatzailea honela osatuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal Elkarteko Prestakuntza eta Enplegu Saileko arduraduna, edo izendatzen den ordezkofuntzionarioa.

Epaimahaikideak:

- Udal Elkarteko Orientazio eta Laneratze zerbitzuko teknikari bat, edo izendatzen den ordezkofuntzionarioa.
- Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzailea, edo izendatzen den ordezkofuntzionarioa.

Idazkaria:

- Euskara eta Komunikazio Zerbitzuko arduraduna, edo izendatzen den ordezkofuntzionarioa.

Epaimahaiko kideak Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariak izendatuko ditu eta izendapena Udal Elkartearen webgunean emango da argitarara.

Epaimahaiak jarduteko autonomia osoa izango du eta prozeduraren legezotasuna eta objektibotasuna zaindu eta bermatuko ditu.

Epaimahaiak jokatuko du 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren, 22-27. artikuluetan (biak barne) xedatutakoaren arabera.

Epaimahaia osatzen den ekitaldian, epaimahaiak, hautaketa-prozesua behar bezala eta egoki bideratzeko behar diren erabakiak hartuko ditu. Epaimahaiaren jardura baliokoa izateko, kideen gehiengoak parte hartu behar du, eta erabakiak bertaratzen diren gehiengoak hartuko ditu. Kide guztiek ahotsa eta botoa izango dute.

Era berean, Epaimahaiak oinarrian inguruan sortzen diren zalantzak argituko ditu, hautaketa-prozesua behar bezala burutzeko behar diren erabakiak hartuko ditu eta oinarriotan zehazten ez diren gorabeheratan aintzat hartu behar diren irizpideak ezarriko ditu, indarrean dagoen araubidearen arabera.

6. Tribunal calificador

El tribunal calificador del proceso de selección estará constituido de la siguiente forma:

Presidenta:

- La responsable del Servicio de Formación y Empleo de la Mancomunidad, o funcionario en quien se delegue.

Vocales:

- Un técnico del Servicio de Orientación e Intermediación Laboral de la Mancomunidad, o funcionario en quien se delegue.
- La Secretaria-Interventora de la Mancomunidad, o funcionario en quien se delegue.

Secretario:

- El responsable de Euskera y Comunicación de la Mancomunidad, o funcionario en quien se delegue.

Los miembros del tribunal serán nombrados por la Presidenta de la Mancomunidad y su designación se hará pública en la página web de la Mancomunidad.

El tribunal actuará con plena autonomía funcional, velando por la legalidad del procedimiento y siendo responsable de garantizar su objetividad.

El tribunal ajustará su actuación a las reglas determinadas en los artículos 22 a 27 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

El Tribunal, constituido al efecto de realizar el presente proceso de selección, adoptará las decisiones que crea convenientes para el correcto desarrollo del mismo. Sus acuerdos serán adoptados por el voto favorable de la mayoría de los miembros presentes. Todos los miembros tendrán voz y voto.

Asimismo, de acuerdo con el ordenamiento jurídico resolverá todas las dudas que surjan en la aplicación de las presentes bases, y tomará los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo de la convocatoria, estableciendo los criterios que deban adoptarse en relación con los supuestos no previstos en ellas.



7. Merzimizenduen lehiaketa

Lehiaketan gehienez 40 puntu lortu ahal izango dira. Merzimizendu hauek baloratuko dira:

- a) Lan-esperientzia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegurako orientazio ekintzak bideratu eta kudeatzen, administrazio publikoan nahiz enpresa pribatuan: hilabete oso bakoitzeko 0,5 puntu. Atal honetan gehienez ere 24 puntu eskuratu ahal izango dira.
- b) Lan-esperientzia bestelako lan orientazio eta bitartekotza zerbitzuetako teknikari gisa, administrazio publikoan nahiz enpresa pribatuan: hilabete oso bakoitzeko 0,25 puntu. Atal honetan gehienez ere 6 puntu eskuratu ahal izango dira.

Lanpostu batek aurreko irizpide horiekiko zer nolako antza duen Epaimahaia aztertu eta erabakiko du, eta egoki irizitako zuzenketa faktoreak aplikatuko ditu, bai hilabete bakoitzeko eman beharreko puntu kopuruari dagokionez, bai lor litekeen gehienezko kopuruari dagokionez.

- c) Prestakuntza: enplegurako orientazio ekintzekin lotuta dauden edo zerikusia duten prestakuntza osagarri, titulu akademiko, jardunaldi, ikastaro eta antzekoak. Gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira, ondoren zehazten diren atal-muga hauekin:
 - 2 puntu bigarren lizentziatura edo master bakoitzeko, gehienez 2 puntu.
 - 2 puntu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lan-eskatzailen aplikatiboaren erabiltzaile ziurtagiriarengatik.
 - 2 puntu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lan-eskaintzen aplikatiboaren erabiltzaile ziurtagiriarengatik.
 - 1 puntu 100-300 ordu arteko ikastaro bakoitzeko, gehienez 2 puntu.
 - 0,5 puntu 20-99 ordu arteko ikastaro, jardunaldi edo baliokide bakoitzeko, gehienez 2 puntu.

Informatika ikastaroak goiko ataletan baloratuko dira.

7. Concurso de méritos

La puntuación máxima a lograr en el concurso será de 40 puntos. Se valorarán los siguientes méritos:

- a) Experiencia profesional en la gestión de las acciones de orientación para el empleo de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, tanto en la administración pública como en la empresa privada. Se valorará con 0,5 puntos por mes trabajado. En este apartado se podrá lograr un máximo de 24 puntos.
- b) Experiencia profesional como técnico de otro tipo de acciones de orientación e intermediación laboral, tanto en la administración pública como en la empresa privada. Se valorará con 0,25 puntos por mes trabajado. En este apartado se podrá lograr un máximo de 6 puntos.

El Tribunal establecerá los criterios para valorar la similitud de la experiencia alegada con respecto a los criterios anteriores. Asimismo, el Tribunal fijará los factores de corrección que estime oportunos, tanto con respecto al valor a atribuir por cada mes, como con respecto a la puntuación máxima a obtener.

- c) Formación: la formación complementaria, títulos académicos, jornadas, cursos, etc. que tengan relación con la gestión de acciones de orientación para el empleo, serán valorados hasta un máximo de 10 puntos, con los máximos parciales que se detallan a continuación:
 - 2 puntos por segunda licenciatura o master, hasta un máximo de 2 puntos.
 - 2 puntos por el certificado de usuario del aplicativo de gestión de demanda de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.
 - 2 puntos por el certificado de usuario del aplicativo de gestión de oferta de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.
 - 1 punto por cada curso de entre 100 y 300 horas, hasta un máximo de 2 puntos.
 - 0,5 puntos por cada curso, jornada o equivalente de entre 20 y 99 horas, hasta un máximo de 2 puntos.

Los cursos de informática se valorarán en este apartado.



Atal bakoitzean egiaztatutako ikastaro, gradu ondo, titulu edo baliokideek atal horretarako ezarritako gehienezko muga gainditzen badute, hurrengo atalean balioetsiko dira.

Ez da balioetsiko eskabidean zehazten ez den eta behar bezala egiaztatzen ez den merezimendurik.

Lan-esperientzia egiaztatzeko aurkeztu behar dira batetik, bizitza laborala eta, bestetik, enpresako ziurtagiriak. Enpresa-ziurtagirik argi eta garbi agertu behar dituzte honako datuak: lanpostuaren izena, kontratuaren iraupena eta lanaldia eta burututako eginkizunak. Horrela ez bada, Epaimahaik erabakiko du balioetsi ala ez eta nola balioetsi. Enpresa-ziurtagirik izan ezean, lan kontratuaren kopia ere baliokoa izango da, lanpostuaren eginkizunak zehazten baditu.

Autonomo gisa izandako lan-esperientzia egiaztatzeko honakoak aurkeztuko dira: lan-bizitza, autonomo altaren egiaztatzea, dagokion epigrafearekin, egindako zerbitzuen egiaztatzeak (fakturak, enpresa ziurtagiriak...).

Lan-esperientzia egiaztatzeko aurkeztutako dokumentuek esperientziaren funtzio eta eginkizunak eta epeak ez badituzte argi eta garbi zehazten, Epaimahaiak ez du merezimendu hori baloratuko.

Prestakuntza egiaztatzeko agiriak argi eta garbi adierazi behar dituzte prestakuntza-ikastaroaren izenburua, edukia eta iraupena. Horrela ez baldin bada, Epaimahaiak ez du merezimendu hori baloratuko.

Nolanahi ere den, beharrezkoa dela irizten badiu, Epaimahaiak aukera izango du lan-esperientzia edo eta prestakuntza egiaztatzeko dokumentu osagarriak eskatzeko edo egiaztapen lanak egiteko.

8. Behin-behineko eta behin betiko emaitzak

Merezimenduen kalifikazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak hautagaien zerrenda onartu eta argitaratuko du, lortutako puntuazioaren hurrenkeran jarrita.

Cuando los cursos, postgrados, títulos o equivalentes que se acrediten en cada uno de los tres apartados que se han subdividido superen el máximo previsto para dicho apartado, serán contabilizados en el apartado siguiente.

No se valorarán los méritos que no se aleguen en la instancia y no se acrediten debidamente.

Para la acreditación de la experiencia profesional se presentarán la vida laboral y los certificados de empresa. Los certificados de empresa deben señalar la siguiente información: denominación del puesto, duración y tipo de jornada del contrato y las funciones desarrolladas. En caso de no poseer el certificado de empresa podrá tener validez el contrato de trabajo, siempre que en el mismo se especifiquen las funciones del puesto.

En el caso de la experiencia profesional en régimen de autónomos se presentarán: la vida laboral, el alta de autónomos con su consiguiente epígrafe y la acreditación de los servicios prestados (facturas, certificados de los clientes, etc.).

De los documentos acreditativos de la experiencia laboral se deberá deducir de forma clara y concreta la duración del contrato y las tareas propias del puesto desempeñado. De no ser así no se valorará.

Asimismo, los certificados de los méritos de formación alegados señalarán su título, contenido y duración. De no ser así no se valorará.

En caso de que el Tribunal lo estime necesario, podrá solicitar documentación complementaria o realizar los trámites acreditativos correspondientes para esclarecer los términos de los documentos acreditativos de la experiencia laboral y de la formación presentadas.

8. Resultados provisionales y definitivos

Realizada la valoración de los méritos, el Tribunal aprobará y publicará la relación provisional de los/las aspirantes según el orden de puntuación obtenido.



Puntuetan berdinketarik balego, irizpide hauen arabera ebatziko da, jarrita dauden hurrenkeran:

- Merezimenduen lehiaketako a) ataleko lan-esperientzian puntu kopururik handiena ateratzea.
- Merezimenduen lehiaketako b) ataleko lan-esperientzian puntu kopururik handiena ateratzea.
- Merezimenduen lehiaketako c) atalean puntu kopuru handiena ateratzea.

Behin-behineko emaitza hori onartu eta argitaratu egingo du Epaimahaiak eta hautagaiei 5 laneguneko epea utziko die erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko dira Udal Elkarteko sarrera erregistroan.

Erreklamaziorik ez baldin badago behin-behineko emaitzak behin betiko bilakatuko dira besterik gabe. Erreklamaziorik baldin bada, aztertu, dagokiona ebatzi eta behin betiko emaitzak onartu eta argitaratuko ditu Epaimahaiak.

Elkarrizketa: behin betiko emaitzak onartu eta argitaratu ondoren, lehiaketan puntuaziorik altuena lortzen duten lau izangaiek Epaimahaiaren aurrean lan-elkarrizketa egingo dute, lanpostuaren ezaugarrietara zer-nola egokitzen diren neurtzeko. Elkarrizketak 10 puntuko balioa izango du. Elkarrizketako puntuazioa lehiaketan lortutakoari gehituko zaio.

9. Epaimahaiaren proposamena

Aurreko ataletan adierazitako eginbideak burutu ondoren, Epaimahaiak lehiaketako eta elkarrizketako puntuazioa batuta punturik gehien lortu duen pertsona bitarteko funtzionario izendatzeko proposamena egingo dio dagokion Udal Elkarteko organoari.

Epaimahaiaren balorazioaren arabera deialdira aurkeztutako izangaiei artean ez badago plaza betetzeko gutxienezko baldintzak betetzen dituenik, plaza bete gabe utzi ahal izango da.

10. Lan-poltsa

Lan-poltsa eratuko da lehiaketan parte hartzen duten hautagaiekin, merezimenduen lehiaketan

Los casos de empate se resolverán atendiendo sucesivamente a los siguientes criterios:

- Mayor puntuación en la valoración de la experiencia laboral del apartado a) del concurso de méritos.
- Mayor puntuación en la valoración de la experiencia laboral del apartado b) del concurso de méritos.
- Mayor puntuación en la valoración del apartado c) del concurso de méritos.

Las personas aspirantes tendrán un plazo de 5 días hábiles para presentar reclamaciones, que deberán de presentarse por escrito en el registro de entrada de la Mancomunidad.

En el caso de que no hubiera ninguna reclamación, los resultados provisionales devendrán definitivos, sin necesidad de ningún acuerdo. Si se presentará alguna reclamación se resolverá la misma y se publicará la relación definitiva de la bolsa de trabajo.

Entrevista: tras la aprobación y publicación de los resultados definitivos, los cuatro aspirantes que obtengan la mayor puntuación en la valoración de los méritos deberán realizar ante el Tribunal una entrevista, para evaluar su adecuación a los requisitos técnico-humanos del puesto. La entrevista tendrá un valor de 10 puntos. La puntuación obtenida en la entrevista será sumada a la obtenida en la valoración de los méritos.

9. Propuesta del Tribunal

Realizadas los trámites comprendidos en los apartados anteriores, el Tribunal propondrá al órgano competente de la Mancomunidad para su nombramiento como funcionario interino a la persona que haya obtenido la mayor puntuación en la suma del concurso y de la entrevista.

Si el Tribunal apreciara que ninguno/a de los/as aspirantes presentados/as a la plaza reúne las condiciones mínimas necesarias para desempeñar el puesto, declarará desierta la misma.

10. Bolsa de trabajo

Los/as aspirantes/as que participen en el proceso de selección constituirán una bolsa de trabajo,



eskuratutako puntuen hurrenkerarekin, antzeko eginkizunak burutzeko langile premiak betetzeko. Lan-poltsa horrek 2 urte egingo ditu indarrean, lan-poltsa eratzeko ebazpenaren datatik kontatzen hasita.

Lan-poltsaren bidez egingo den ordezkapenak edo bete behar den lanpostuak eskakizun zehatzak baldin baditu (titulazioa, hizkuntza eskakizuna edo bestelakoak) Udal Elkarteak eskakizun horiek betetzen dituzten hautagaiengana joko du, lan-poltsan lortutako puntuen hurrenkeran.

Unean uneko hutsuneak betetzeko orduan, Udal Elkarteak aukera izango du lan-poltsako hautagaiei lan-elkarrizketak egiteko, oinarriotan ezarritako prozedurari jarraituz.

Udal Elkarteak lan-poltsako pertsonen lanpostu bat eskaintzen dienean, eskaintza onartzeko epea zortzi egunekoa izango da gehienez ere, deia edo mezu elektronikoa jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, laneratzeko epea hamabost egunekoa izango da gehienez ere (beranduago laneratzeko aparteko arrazoiak direnean zian ezik), deia edo mezu elektronikoa jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

11. Izaera pertsonaleko datuak

Izangaien izaera pertsonaleko datuak "giza baliabideak" izeneko fitxategian sartuko dira. Fitxategi hori Udal Elkarteak Idazkaritzak kudeatuko du eta hautaketa-prozesua bideratzeko erabiliko du. Izangaiek fitxategiko datuetara sartzeko, datuak ezeztatzeko, haien kontra agertzeko edo zuzentzeko eskubidea izango dute.

Datu pertsonalak tratatuko dira abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuaren (izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun neurriei buruzko araudiaren) arabera.

Era berean, izangaien identifikazio datuak eta harremanetarako telefono zenbakiak beste toki administratibo batzuei emango ahal izango dizkie Udal Elkarteak, aldi baterako eta gisa bereko lan beharrak betetzeko erabil ditzaten.

atendiendo a la puntuación obtenida en la valoración de los méritos, para cubrir necesidades de personal de funciones similares. Dicha bolsa de trabajo tendrá una vigencia de 2 años, contados desde la fecha de la resolución de creación de la bolsa de trabajo.

Si la vacante a cubrir mediante la bolsa de trabajo tiene requisitos específicos (titulación, perfil lingüístico u otros) la Mancomunidad se dirigirá a aquellas personas de la bolsa de trabajo de cumplan los mismos, según el orden de puntuación obtenido.

Asimismo, la Mancomunidad podrá realizar entrevistas personales a los/las candidatos/as de la bolsa de trabajo si lo estima necesario, siguiendo el procedimiento establecido en las presentes bases.

Cuando la Mancomunidad oferte un puesto a una persona de la bolsa de trabajo, ésta dispondrá de un plazo de ocho días naturales para aceptar la oferta, contados desde el día siguiente a la llamada de teléfono o remisión del mensaje electrónico. Asimismo, el plazo para la incorporación al trabajo será de quince días naturales, contados desde el día siguiente a la llamada de teléfono o remisión del mensaje electrónico.

11. Datos de carácter personal

Los datos de carácter personal de los aspirantes pasarán a formar parte de un fichero denominado "recursos humanos" que será objeto de tratamiento con el fin de poder gestionar el proceso selectivo. Dicho fichero será gestionado por la Secretaría de la Mancomunidad. Los aspirantes podrán ejercer el derecho de acceso, cancelación, oposición y rectificación de sus datos. El tratamiento de los datos personales se llevará a cabo según lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Datos de Carácter Personal, así como en la normativa sobre medidas de seguridad de los ficheros automatizados que contienen datos personales, aprobada mediante Real Decreto 994/1999, de 11 de junio.

Asimismo, los datos de identificación y teléfono de contacto de los aspirantes podrán ser objeto de cesión a otras administraciones locales, con el fin de cubrir necesidades de trabajo temporales.

12. Gorabeherak

Oinarri hauean zehaztu gabekoetarako, arlo horretan indarrean dagoen araubidea aplikatuko da.

Epaimahaiak eskubidea du hautaketa-prozesuan zehar sortzen diren zalantzak argitu eta prozesu hori behar bezala burutzeko hartu behar diren neurri eta erabakiak hartzeko, oinarriotan zehaztu gabe dauden alderdiei dagokienez.

13. Komunikazioak

Lehiaketa honen inguruko komunikazioak (epeak, zerrendak, erabakiak, deialdiak...) Udal Elkarteko iragarkien taulan (Urdaneta bidea 6, tel. 943890808, Zarautz) eta web orrian (www.urolakosta.org) emango dira jakitera.

14. Aurka egitea

Interesatuek, deialdiaren, bere oinarrien eta deialdiak berak zein epaimahaiaren jardunak eragin ditzakeen ekintza administratiboen aurka jo dezakete, azaroaren 26ko Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak xedatutako kasu eta moduetan.

12. Incidencias

En lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la normativa específica de función pública de la materia.

El tribunal queda facultado para resolver las dudas que se presenten y tomar acuerdos necesarios para el buen orden del proceso de selección en todo lo no previsto en estas bases.

13. Comunicaciones

Las comunicaciones relacionadas con el presente concurso (plazos, listas, resoluciones...) se publicarán en el tablón de anuncios de la Mancomunidad (Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz) y en su página web (www.urolakosta.org).

14. Impugnaciones

La aprobación de las presentes Bases y cuantos actos administrativos se derivan de la misma y de la actuación del Tribunal Calificador podrán ser impugnados por los/as interesados/as en los casos y formas previstas en la Ley 30/92, de 26 de noviembre.

Zarautzen, 2014ko urtarrilaren 10ean

Amaia Guruzeta Aizpurua
Urola Kostako Udal Elkarteak
Lehendakaria



HAUTAKETA-PROZESUA: ORIENTATZAILEA

ESKABIDEA

Izen-abizenak: NAN zk.:

Helbidea: PK: Herria:

Tel.: Tel. mugikorra: E-maila:

Honakoa **ADIERAZTEN DUT**:

- Urola Kostako Udal Elkarteak **enplegurako orientazio ekintzak burutzeko bitarteko funtzionario bat izendatzeko deitu duen lehiaketa** arautzen duten oinarriak ezagutzen eta onartzen ditut.
- Lehiaketan parte hartu ahal izateko tituluaren jabe naiz.
- Oinarriek ezarritako baldintza guzti-guztiak betetzen ditut.
- Eskabide honi erantsita doaz lehiaketan baloratzeko merituen agiri originalak edo fotokopia konpultsatuak (eskabidearen atzealdean daude adierazita merituenak).

Hori dela eta, honakoa **ESKATZEN DIZUT**:

Eskabide hau ontzat hartu eta lehiaketa horretan parte hartzea.

.....(e)n, 2014ko(a)ren (e)an

Sinadura

Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria
Urdaneta bidea 6, 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa).

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babestekoak, xedatzen duena betetzeko, aditzera ematen dizugu inprimaki honetan adierazten dituzun datuak Urola Kostako Udal Elkartearen jabetzakoa den eta "giza baliabideak" izena duen fitxategian txertatuko ditugula eta erabiliko direla zure eskaria bideratzeko administrazio-jardunbideek ezarritako eran. Halaber, aditzera ematen dizugu sarbide, zuzenketa, ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzatzeko honako harrera zerbitzura jo dezakezula: Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz (Gipuzkoa).



ESKABIDEARI ERANTSITAKO AGIRIAK

Honako agiriak eransten dizkiot eskabideari (markatu laukia):

- NANren fotokopia konpultsatua.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua.
- Hirugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko titulu edo ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua.
- Eskabidean adierazitako merituen egiaztagirak (fotokopia konpultsatuak).

LEHIAKETAN BALORATZEKO MERITUAK

Lan esperientzia

Administrazioa /Enpresa	Lanpostua	Hasiera	Amaiera

Prestakuntza

Emaila (ikastegia, unibertsitatea...)	Ikastaroaren izenburua	Ordu kopurua



PROCESO DE SELECCIÓN: TÉCNICO DE ORIENTACIÓN

INSTANCIA

Nombre y apellidos: N° D.N.I.:

Domicilio: C.P.: Población:

Teléfono: Tel. móvil: E-mail:

El abajo firmante, **EXPONE:**

- Que conoce y acepta las bases por las que se ha de regir el concurso para la cobertura interina, mediante concurso, de un puesto de técnico para el desarrollo de acciones de orientación para el empleo.
- Que está en posesión del título exigido en las bases.
- Que a fecha de la solicitud, reúne todas las condiciones que se establecen en las bases.
- Que a efectos de su valoración en el concurso, adjunta la documentación original o fotocopias compulsadas que se citan al dorso.

Y es por lo que, **SOLICITA:**

Que dando por aceptada la presente solicitud, se le permita tomar parte en el citado concurso.

En..... , a.....de..... de 2014.

Firma

Sra. Presidenta de la Mancomunidad de Urola Kosta.
Urdaneta bidea 6, 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa).

En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos que los datos que nos facilite mediante la cumplimentación del presente formulario pasarán a formar parte del fichero denominado "recursos humanos" propiedad de la Mancomunidad Urolakosta y se utilizarán en los términos previstos en los procedimientos administrativos que sean necesarios para la tramitación de su solicitud. Asimismo, le informamos que puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz (Gipuzkoa).

DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR:

Adjunto a la solicitud presento la siguiente documentación (márquese la cuadrícula):

- Fotocopia compulsada del D.N.I.
- Fotocopia compulsada de la titulación exigida para tomar parte en la convocatoria.
- Fotocopia compulsada del documento acreditativo del perfil lingüístico 3
- Documentos acreditativos (fotocopias compulsadas) de los méritos alegados en la instancia.

MERITOS A VALORAR EN LA FASE DE CONCURSO

Experiencia laboral

Administración/Empresa	Puesto	Inicio	Final

Formación

Impartido por	Título o denominación del curso	Nº horas